

Txostena

Informe

**Administrazio elektronikoaren azapen-
egoeraren fiskalizazioa 10.000 eta
20.000 biztanle bitarteko udalerrietako
udaletan**

**Fiscalización del estado de implantación de
la administración electrónica en los
ayuntamientos de municipios de población
entre 10.000 y 20.000 habitantes**

2020-2021





Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. EGINDAKO LANAREN EMAITZAK	9
II.1 Foru aldundiek emandako laguntza	9
II.2 Alderdi orokorrak	11
II.3 Administrazio elektronikoko baliabideak 2020ko ekainaren 30ean	12
II.4 Administrazio elektronikoaren beste elementu batzuk	20
II.5 Tramitazio elektronikoan erdietsitako maila	22
II.6 Aurrekontuari buruzko informazioa	23
II.7 Webguneen eta aplikazio mugikorren irisgarritasuna	23
II.8 Sare sozialak, wifi konexioa	24
II.9 COVID-19aren ondorioak	25
II.10 Ingurumenean inpaktua.....	27
ABREVIATURAS	31
I. INTRODUCCIÓN.....	33
II. RESULTADOS DEL TRABAJO REALIZADO	35
II.1 Asistencia de las Diputaciones Forales.....	35
II.2 Aspectos generales.....	37
II.3 Herramientas de administración electrónica a 30 de junio de 2020.....	38
II.4 Otros elementos de la administración electrónica.....	46
II.5 Nivel alcanzado en la tramitación electrónica.....	48
II.6 Información presupuestaria.....	49
II.7 Accesibilidad de los sitios web y aplicaciones móviles.....	49
II.8 Redes sociales, conexión wifi	50
II.9 Repercusiones del COVID-19	51
II.10 Impacto medioambiental	53

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 7a
Vitoria-Gasteiz, a 7 de octubre de 2021





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

3/2010 ED	3/2010	Errege Dekretua,	Administrazio Elektronikoaren	esparruan
		Segurtasunerako Eskema Nazionala	arautzen duena.	
4/2010 ED	4/2010	Errege Dekretua,	Administrazio Elektronikoaren	esparruan
		Elkarreraginkortasunerako Eskema Nazionala	arautzen duena.	
AFA		Arabako Foru Aldundia.		
AKZ		Arabako Kalkulu Zentroa SA.		
ALH		Arabako Lurralde Historikoa.		
APEL	39/2015	Legea, urriaren 1ekoa,	Administrazio Publikoen	Administrazio
		Prozedura Erkideari	buruzkoa.	
BFA		Bizkaiko Foru Aldundia.		
BLH		Bizkaiko Lurralde Historikoa.		
DBEO		Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez, eta zeinaren indarrez 95/46/CE Zuzentaraua baliogabe uzten baita (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra).		
DBLO		Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.		
EAE		Euskal Autonomia Erkidegoa.		
EEN		Elkarreragingarritasunerako Eskema Nazionala.		
EJIE		EJIE- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SA.		
FFAA		Foru Aldundiak.		
GFA		Gipuzkoako Foru Aldundia.		
GLH		Gipuzkoako Lurralde Historikoa.		
HKEE		Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.		
IKT		Informazio eta Komunikazio Teknologiak.		
IZENPE		Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa, SA.		
IZFE		Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte SA.		
KZN		Kriptologia Zentro Nazionala.		
NISAE		Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoa.		
SEN		Segurtasunerako Eskema Nazionala.		
SETN		Segurtasunaren Egoerari buruzko Txosten Nazionala.		
SPAJL	40/2015	Legea, urriaren 1ekoa,	Sektore Publikoaren	Araubide Juridikoari
		buruzkoa.		



I. SARRERA

HKEEk, otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Osoko Bilkurak onartutako Lanerako Planean ezarritakoaren arabera, 2020ko ekainaren 30ean 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietako udaletan administrazio elektronikoen ezarpen-egoera aztertu du, eta data horretan indarrean sartu diren aurreikuspen jakin batzuen egoeraren azterketa 2021eko apirilaren 2ra hedatu du. Lan hau Estatuko gainerako Kanpo Kontrolerako Organoekin eta Kontuen Epaitegiarekin lankidetzan egin da.

Txosten honek honako alderdiok besarkatzen ditu:

- Administrazio elektronikoen egiazko ezarpena udaletan.
- Fiskalizatutako erakundeetatik administrazio elektronikoa ezartzeko jasotako diru-sarrerak eta horretarako berariaz egindako gastuak eskuratzea.
- Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (2021eko apirilaren 2an sartu zen indarrean) administrazio elektronikoi buruzko azken aurreikuspenak betetzeko egindako jarduketak egiaztatzea, baita data horretan egiaz ezarriak daudela ere.
- SENaren, EENaren eta datuak babesteko araudia betetzeari dagokionez, legez ezarritako betebeharrekin lotutako oinarritzko gaiak betetzen direla egiaztatzea.
- Udalek egindako eraldaketa digitala, plangintza eta hartutako neurri garrantzitsuenak identifikatzea.
- Berebat, azken helburu bat gehitu da, udaletan administrazio elektronikoa ezartzeari dagokionez aipatu diren helburuekiko zeharkakoa dena: ingurumen-gai batzuen azterketa, hala badagokio, izapidetze elektronikoa lortutako mailaren eta COVID 19ak izandako eraginaren adierazgarri.

Lana egiteko, lagin gisa azterketa-tartearen barruan lurralde historiko bakoitzeko biztanleria handiena duen udalerria hautatu da. Honako hauek dira:

LURRALDEA / UDALA	BIZTANLE KOPURUA (*)
ALH / Laudio	18.118
BLH /Amorebieta-Etxano	19.529
GLH / Tolosa	19.816

(*) 2020ko urtarrilaren 1eko biztanleria-zifrak, abenduaren 15eko 1147/2020 Errege Dekretu bidez ofizial izendatuak.

Europako Batzordeak honela definitzen du administrazio elektronikoa: IKTen erabilera administrazio publikoetan, antolaketa-aldaketei eta langileen gaitasun berriei lotuta, zerbitzu publikoen kalitatea eta irisgarritasuna hobetzeko, prozesu demokratikoak indartzeko eta politika publikoei laguntza emateko helburuarekin.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak zenbait neurri ezarri zituen administrazio elektronikoa bultzatzeko, baina ez zen administrazio publikoentzako betebeharrak gisa planteatu.



Herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea inflexio-puntua izan zen administrazio digitalean, herritarrek administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko eskubidea dutela ezarri baitzuen. Berebat, administrazio publikoei beren artean harreman elektronikoa izateko betebeharra ezarri zien, egoitza elektronikoen kontzeptua jaso zuen, herritarrak eta administrazio-organoak beren eskumenak baliatzean identifikatzeko eta autentifikatzeko moduak arautu eta erregistro elektronikoak sortu zituen.

Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (aurreko paragrafoan aipatutako legea indargabetzen du) eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak finkatu egiten dute pertsonak administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko duten eskubidea, horietarako sarbidea sinplifikatuz, eta berresten dute administrazio publikoek bitarteko elektronikoen bidez erlazionatzeko obligazioa dutela beren artean, bakoitzak hartutako sistemen eta soluzioen elkarreragingarritasuna eta segurtasuna bermatuko dutenak, datu pertsonalen babesa bermatuz. Administrazio publikoetan IKTen erabilera indartzen dute, bai haien kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko, bai haien arteko lankidetzak eta kooperazio-harremanak sustatu eta bultzatzeko.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 19.4 artikuluan agintzen du foru-organo eskudunek, toki-araubidearen oinarriko legerian eta foru-araudian ezarritako baldintzetan, laguntza teknikoa emango dietela nor bere lurralde historikoko udalerriei, legeek eta, hala badagokio, foru-arauek esleitutako udal-eskumenen erabateko eraginkortasuna bermatzeko.



II. EGINDAKO LANAREN EMAITZAK

II.1 FORU ALDUNDIEK EMANDAKO LAGUNTZA

Foru aldundiek administrazio elektronikoari dagokionez udalerriei eman behar dieten laguntzaren esparruan, 2020ko ekainaren 30ean eta hala nahi duten udalei, txosten honen xede diren honako zerbitzu eta laguntza hauetarako baliabideak eskaintzen dizkiete:

ZERBITZUA	AFA	BFA	GFA
- Egoitza elektronikoa (SPAJLen 38. art.).....	✓	✓	✓
- Identifikazioa eta sinadura (APELen 9. eta 10. art. eta SPAJLen 40. art.).....	✓	✓	✓
- Jakinarazpen elektronikoen sistema (APELen 41.1 art.).....	✓	✓	✓
- Espediente elektronikoa (APELen 70. art.).....	✓	✓	✓
- Artxibo elektronikoa (SPAJLen 46. art. eta APELen 17. art.)	✓	✓	-
- Datuen bitartekaritzarako plataforma (APELen 28.2 art.)	-	✓	✓
- Herritarren karpeta (APELen 53.1 a) art.)	-	✓	✓
- Datuak egiaztatzea/Egiaztapen-kode seguruak (APELen 27.3 art.)	✓	✓	✓
- Sarbide elektronikoro korra (APELen 13 a) art.)	✓	✓	✓
- Erregistro elektronikoa (APELen 16. art.).....	✓	✓	✓
- Ahalordetzeen erregistro elektronikoa (APELen 6. art.)	-	-	✓
- Gaitutako enplegatu publikoen erregistroa (APELen 12.3 art.).....	-	-	✓
- Artxibo elektronikoko bakarra (APELen 17. art.)	✓	-	-

LAGUNTZA	AFA	BFA	GFA
- Datuen babesa	-	✓	✓
- SEN betetzea	-	✓	✓
- EEN betetzea	-	✓	✓
- Housing	-	-	-
- Hosting	-	✓	✓
- Egoitza elektronikoa gaurkotutako direktorio geografikoak, erregistro gaietan laguntza-bulegoak Identifikatzeko APELen 4. XG).....	-	✓	-
- Erregistro gaietan erregistro-bulegoak laguntza-bulego izateko egokitzea	-	✓	✓

Udalak zerbitzu horietara borondatez atxikitzen dira, eta atxikitzeko hitzarmen, eskaera edo akordioen bidez egiten da.

AFAk kanpoko enpresa bat kontratatuta ematen ditu zerbitzu horiek. BFAk Bizkaytik foru-fundazioaren bidez. Fundazio hori 2008an sortu zen, Bizkaiko toki-erakundeak modernizatzeko, erakunde horiei teknologia berriak erabiltzen lagunduz, zerbitzu eta produktuen eskaintzaren bidez. GFAk IZFE SA merkataritzako foru-enpresa bidez ematen ditu; IZFEk zerbitzu informatikoak ematen dizkie GLHko udalei eta GFari berari.

Foru aldundiek lankidetzeta-hitzarmenak sinatu dituzte EAEko Administrazio Orokorrekin, administrazio elektronikoko oinarritzko soluzioak elkarri emateko; horien bitartez EAEko toki-erakundeek hitzarmenetan aurreikusitako soluzioak eskura ditzakete, bai eta 2017ko martxoaren 24an EAEko Administrazio Orokorrek Estatuko Administrazio



Orokorrekin sinatutako hitzarmenean adostutakoak ere. Foru-aldundi bakoitzak sinatutako hitzarmenen datak honako hauek dira:

ERAKUNDEA	DATA
AFA	2018/12/11
BFA.....	2020/06/30
GFA	2018/12/05

Hitzarmen horien barruan sartzen dira "identifikazioa eta sinadura" eta "datuen bitartekaritzarako plataformarako sarbidea" zerbitzuak. Bi zerbitzu horietan parte hartzen du IZENPEk, ziurtapen-zerbitzuak emateko konfiantzazko erakunde denak eta EJIE, CCASA, LANTIK SA eta IZFE zerbitzu informatikoen sozietate publikoen partaidetza du. Sozietate horien helburua da administrazioen, herritarren eta enpresen zerbitzura jartzea osotasunaren, konfidentziasunaren, arbuiorik ezaren eta benetakotasunaren bermearekin erlazionatzeko behar diren bitartekoak.

Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko zerbitzuen kudeaketa integrala produktu, zerbitzu eta plataforma teknologikoen sinergia bidez lortzen da, Giltza (identitateen kudeaketa integralerako plataforma) eta Zain (sinadura-zerbitzuen plataforma) modukoekin.

Giltza identitateen federazio plataforma bat da, autentifikazio mekanismoen konbinazioan oinarritzen dena. IdP gisa dihardu (identifikazio- eta autentifikazio-zerbitzuen hornitzailea) euskal administrazio publikoentzat definitu diren eIDAS (identitate elektronikoak ezagutzeko Europako sistema) gako itunduetan (Bak, BakQ eta Giltza Profesionala gakoak). Gainera, Giltza beste mekanismo osagarri batzuekin integratzen da, hala nola Zain plataformarekin (ziurtagiri elektroniko kualifikatuen bidezko identifikazioa kudeatzeko) eta Clave plataformarekin, zeinak elkarreragingarritasunerako estatuko nodo gisa jarduten baitu eta elkarreragingarritasunerako Europako plataformarekin lotura baitu.

Estatuko Administrazio Orokorreko datuak trukatzeko plataformarekiko konexioa NISA Eren zerbitzuetako bat da, EAEko administrazio publikoen datu-bitartekaritzarako plataforma, EAEko Administrazio Orokorren eta hiru foru-aldundien artean lankidetzan sortua, beren sozietate informatikoen bidez, eta IZENPEri eman zaio haren kudeaketa. CCSAk, Bizkaytik Fundazioak eta IZFEk beren lurralde historikoko tokiko udal guztien igorle eta errekeritzaile rola hartzen dute, hiriburuena izan ezik, eta dagozkien funtzioak eta erantzukizunak beren gain hartzen dituzte.

AFAREN kasuan, arazo teknikoak direla-eta, hitzarmenetara atxiki diren udalek ez dute NISA Eren sarbide operatiborik izan 2021eko martxora arte.



II.2 ALDERDI OROKORRAK

Aztergai izan ditugun udalek erabaki dute II.1 atalean adierazitako administrazio elektronikoko oinarriko soluzioak elkarri emateko lankidetzeta-hitzarmenei atxikitzea, data hauetako akordioen bidez:

UDALA	DATA	ERABAKIA:
Amorebieta-Etxano	2021/01/8	Alkatetzaren dekretua
Laudio.....	2019/12/30	Osoko Bilkuraren erabakia
Tolosa (*).....	2019/02/11	Tokiko Gobernu Batzarra

(*) 2018ko maiatzaren 30ean hitzarmen bat sinatu zuen EAeko Administrazio Orokorrarekin, zeinaren indarrez administrazio elektronikoko oinarriko soluzioak elkarri emateko lankidetzeta-hitzarmenari atxikitzen baitzaio; EAeko Administrazio Orokorrak hitzarmen hori 2017ko martxoaren 24an sinatu zuen Estatuko Administrazio Orokorrarekin.

Foru-aldundien laguntza administrazio elektronikoa garatzeko modu desberdinean erabili da aztertutako udaletan. Amorebieta-Etxanoko Udalak kanpoko enpresa baten kontratazioa baliatu du; Laudioko eta Tolosako udalek, aldiz, AFAk eta GFak eskaintzen dituzten zerbitzuak baliatu dituzte, hurrenez hurren; zerbitzu horiek laguntza teknikoa eta araei buruzkoa ematen dute, eta, GFaren kasuan, antolakuntzakoa ere bai.

Laudioko Udalak 2011ko irailaren 8an sinatu zuen AFArekin lankidetzeta-hitzarmena, AFAk hala nahi duten udalerrien egoitza elektronikoak hartzeko 2010ean sortu zuen egoitza partekatuan sartzeko. AFA da egoitzaren mantentze-lan teknikoaren arduraduna. Hitzarmen horretan bertan, Udalak erregistro elektronikoa sortu zuen, eta idazkaritza daraman pertsonak hartuko du bere gain erregistro hori kudeatzeko ardura. Hitzarmen hau izenpetuta, Arabako Foru Aldundiak Udalaren esku jarri ditu kontratatutako tresna informatikoak.

Tolosako Udalak eta IZFE foru sozietate publikoak 2003ko urtarrilaren 7an hitzarmen bat sinatu zuten zerbitzu informatikoen prestazioa arautzeko. Hitzarmen hori zerbitzu berriekin zabalduz joan da, sortzen diren premien arabera; Udalak IZFERi eskuragarri dauden produktuak aktibatuzeko eskatzen dio.

Amorebieta-Etxanoko Udalak administrazio elektronikoa buruzko ordenantza bat onartu du, 2019ko abenduaren 2an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena. Gainera, Udal honek azterketa bat egin du (2020ko irailean) administrazio elektronikoa ezartzeko behar diren antolakuntza-, langile- eta teknika-beharrak zehazteko. Azterketa horretan, horietako bakoitzak dituen prozedurak, izapideak eta dokumentuak definitu dira, baita arduradunak ere. Halaber, herritarrek beren zerbitzu elektronikoak nola erabiltzen dituzten jakiteko jarraipen-jarduerak ere egiten ditu.

Ekainaren 30ean, Amorebieta-Etxanoko eta Tolosako udaletan IKT profil teknikoa duten 4 eta 3 langile daude, hurrenez hurren, administrazio elektronikoa ezarpenarekin, mantentzearekin edo jarraipenarekin lotuta.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aztertutako hiru udaletan, erabiltzaile guztiek administrazio elektronikorekin lotutako aplikazio edo sistema berriak erabiltzeko berariazko prestakuntza jaso dute 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30era bitartean. Hauek izan dira bertaratu diren pertsonak eta prestakuntza-orduak:

KONTZEPTUA	AMOREBIETA	
	ETXANO	LAUDIO
2019an prestakuntza jaso zuten langileak.....	50	10
Prestakuntza-orduak guztira 2019an	100	150
2020ko urtarrilaren 1 eta ekainaren 30 bitartean prestakuntza jaso zuten langileak	75	3
Prestakuntza-orduak guztira 2020ko urtarrilaren 1 eta ekainaren 30 bitartean	150	60

Oharra: Tolosako Udalak ez du zehaztutako aldiatarako prestakuntza jaso zuten langile-kopuruaren datu xehakaturik, ez eta prestakuntza-orduei buruzkorik ere.

II.3 ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO BALIABIDEAK 2020KO EKAINAREN 30EAN

Aztergai izan ditugun udalek 2020ko ekainaren 30ean administrazio elektronikoko honako zerbitzu hauekin lotutako baliabideak zituzten:

ZERBITZUAK	AMOREBIETA-		
	ETXANO	LAUDIO	TOLOSA
- Egoitza elektronikoa (SPAJLen 38. art.).....	✓	✓	✓
- Identifikazioa eta sinadura (APELen 9. eta 10. art. eta SPAJLen 40. art.).....	✓	✓	✓
- Jakinarazpen elektronikoko sistema (APELen 41.1 art.).....	-	✓	✓
- Espediente elektronikoa (APELen 70. art.).....	-	✓	✓
- Datuen bitartekaritzarako plataforma (APELen 28.2 art.)	-	(*) -	-
- Herritarren karpeta (APELen 53.1 a) art.)	✓	✓	-
- Datuak egiaztatzea/Egiaztapen-kode seguruak (APELen 27.3 art.)	✓	✓	✓
- Sarbide elektroniko orokorra (APELen 13 a) art.).....	✓	✓	✓
- Artxibo elektronikoa (SPAJLen 46. art. eta APELen 17. art.)	-	-	-
- Erregistro elektronikoa (APELen 16. art.).....	✓	✓	✓
- Ahalordetzeen erregistro elektronikoa (APELen 6. art.)	-	-	-
- Gaitutako enplegatu publikoen erregistroa (APELen 12.3 art.)	-	-	-
- Artxibo elektroniko bakarra (APELen 17. art.)	-	-	-

(*) Laudioko Udala 2021eko martxoan sartu zen datuen bitartekaritzarako plataforman.

APEL eta SPAJL 2016ko urriaren 2an sartu ziren indarrean, honako hauei buruzko preskripzioetarako izan ezik: sarbide elektroniko orokorra, erregistro elektronikoa, ahalordetzeen erregistro elektronikoa, gaitutako enplegatu publikoen erregistroa eta artxibo elektronikoa bakarra; horiek guztiak, APELen azken xedapenetatik zazpigarrenaren arabera, 2021eko apirilaren 2an sartu ziren indarrean. Udalek emandako informazioaren arabera, 2021eko apirilaren 2an abian jarri gabe zeuden preskripzio horietarako tresnak eta honenbestez, ez ziren eskuragarri egon 2020ko ekainaren 30ean.



Amorebieta-Etxanoko Udalak 2021eko ekitaldia amaitu baino lehen oraindik erabiltzen ez dituen administrazio elektronikoko zerbitzuak izatea espero du. Espediente elektronikoen eta gaitutako langile publikoen erregistroaren kasuan, kanpoko hornitzaile batek egoeraren diagnostikoa egin zuen, eta ezarpena barneko baliabideekin egiten ari da. Datuen bitartekaritzarako plataformari dagokionez, 2021eko urtarrilaren 8an (ikus II.2) erabaki zen soluzio horri atxikitzea, baina abiaraztea luzatzen ari da, aplikaziorako sarbidea konplexua delako eta zerbitzuen altak justifikazio-dokumentazioa kargatzeko prozesu luzea dakarrelako. Ahalordeteeen erregistro elektronikoen kasuan, Udalak BFAk edo Eusko Jaurlaritzak emandako soluzioari atxikitzea espero du. Jakinarazpen elektronikoa lehenagoko aplikazio baten migrazio-fasea amaitu ondoren egingo da; artxibo elektronikoen eta artxibo elektronikoen bakarraren garapena, berriz, udal-artxiboaren arduradun berriaren prestakuntzak baldintzatuko du.

Laudioko Udalak, 2020ko ekainaren 30ean, ez ditu erabiltzen AFAk artxibo elektronikorako eta artxibo elektronikoen bakarrerako eskura jarritako tresnak, ez baitira lehentasunezko zatik jo baliabiderik ez izateagatik, eta aurreikusten du 2021ean zehar abiaraziko direla. 2021eko apirilaren 2an, AFAk ez die laguntzarik eskaini udalerriei ahalordeteeen erregistro elektronikoa eta enplegatu publiko gaituen erregistroa garatzeko.

Tolosako Udalak 2021ean zehar gaitutako funtzionarioen erregistro elektronikoa eta APEL-en araututako edukia duen herritarren karpeta izatea aurreikusten du, bai eta bitartekaritza-plataforman sartzea ere, nahiz oraindik ezin izan dituen ezarri, bitarteko faltagatik. Egiteke dauden gainerako alderdiei dagokienez, Udala IZFEk ezarpena egin zain dago.

Egoitza elektronikoa


2017. eta 2018. urteetan, Tolosako eta Amorebieta-Etxanoko eta Laudioko udalen egoitza elektronikoa abiarazi ziren, hurrenez hurren, eta erabilgarri dauden zerbitzuetara sartzeko kanalak identifikatzen dituzte.

Amorebieta-Etxanon eta Tolosan udalak eurak dira egoitzen titularrak. Laudioko Udalak 2011ko irailaren 8an sinatu zuen AFArekin lankidetzaren hitzarmena, AFAk hala nahi duten udalerrien egoitza elektronikoa hartzeko 2010ean sortu zuen egoitza partekatuan sartzeko. AFA da egoitzaren mantentze-lan teknikoaren arduraduna.

Egoitza elektronikoen titularrek erantzukizuna dute informazioaren eta horren bidez eskura daitezkeen zerbitzuen osotasunaren, egiazkotasunaren eta eguneratzearen gainean (SPAJLren 38.2 artikulua); Amorebieta-Etxanoko Udalak, baina, ez du ezaugarri horiek ziurtatzeko modua arautzen duen tresnarik edo prozedurarik. Tolosako Udalak IZFEren zerbitzuak erabiltzen ditu ardura hori betetzeko.

Amorebieta-Etxanoko Udalak arau espezifiko baten bidez arautzen ditu egoitza elektronikoa eta haren gutxieneko edukia, hau da, 2019ko abenduaren 2an BAO-n argitaratutako administrazio elektronikoen ordenantza, eta oraindik ez da egokitu bere egoitzaren edukia ordenantza horretan xedatutakora.

2018tik 2020ra bitartean udalen egoitza elektronikoa jasotako sarbideek gora egin dute urterik urte, eta udal bakoitzak oso kopuru bestelakoak izan ditu abiaburu:




Identifikazioa eta sinadura

Tolosako eta Laudioko udaletan, Izenpek ematen ditu egoitza elektronikoko administrazio-prozeduretan identifikatzeko eta sinatzeko sistemak, eta Amorebieta-Etxanoko Udalak, berriz, kanpoko enpresa bat kontratatu du zerbitzu horiek emateko.

Bestalde, hiru udalek IZENPEk emandako zigilu elektronikoa dute, identifikatzeko sistema gisa (SPAJLren 40. artikulua).

Sinadura elektronikorako, administrazio-jarduera automatizatuak gauzatzean, Amorebieta-Etxanoko eta Laudioko udalek zigilu elektronikoa erabiltzen dute sistema gisa, eta Tolosakoak, berriz, egiaztapen-kode segurua (SPAJLren 42. artikulua).

Langileei dagokienez, bere gaitasunak garatzeko IZENPEren sistemak edo ziurtagiriak erabiltzen ditu, bere lanpostua, kargua edo organoa identifikatzen duen sinadura elektronikoko sistema gisa. Sinadura edo ziurtagiri elektronikoa duten langileen kopuruak gora egin du 2018-2020 aldian:



Jakinarazpen elektronikoko sistema

Laudioko eta Tolosako udalek 2018ko ekitaldiaz geroztik egiten dituzte jakinarazpen elektronikoak. Jakinarazpen horiek, gaitutako helbide elektronikotik egindakoak, Tolosako Udalean egindako jakinarazpenen guztizkoaren gainean (Laudioko Udalak ez du informazio hori) honako ehuneko hauek ekarri dituzte:

URTEA	EHUNEKOA
2018.....	% 4,13
2019.....	% 35,00
2020.....	% 33,00

Udal bietako batek ere ez du onartu jakinarazpen elektronikoen erabilera arautuko duen tresna juridikorik, eta ez dute interesdunen eskura jarri epeen zenbaketaren berri ematen duen dokumenturik. Biek tresna erabiltzeko eskuliburu bat dute, egin beharreko prozedura deskribatzen duena. Halaber, biek ematen diete erabiltzaileei beren gailu elektronikoetara edo posta elektronikoko helbideetara egindako jakinarazpenen berri emateko sistema bat (APELen 41.6 artikulua).

Espediente elektronikoa

Laudio eta Tolosako udalek 2017tik erabiltzen dituzte espediente elektronikoak egiteko tresnak, espediente bidaltzean EEN eta haren arau teknikoak bete ahal izateko (APELen 70.3 artikulua). Tolosako Udalean idatzizko prozedurak zehaztu dira espediente



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

elektronikoaren izapide eta fase bakoitzerako, arduradunak, onartutako sinadurak, betekizun formalak, epeak eta erabiltzaileen profilak adieraziaz.

Espediente elektronikoa honako arlo edo sail hauetako prozedura elektroniketan ezarri da:

ARLOA/SAILA	LAUDIO	TOLOSA
- Idazkaritza	✓	✓
- Kontratazioa	(*) ✓	✓
- Artekartitza	✓	(*) ✓
- Diruzaintza	-	(*) ✓
- Diru-bilketa	(*) ✓	(*) ✓
- Erregistro Nagusia	(*) ✓	✓
- Zerbitzu teknikoak	(*) ✓	✓
- Giza baliabideak	(*) ✓	✓
- Gizarte zerbitzuak	(*) ✓	✓

(*) Espediente elektronikoa prozedura administratibo batzuetan ezarri da, ez guztietan.

Herritarren karpeta

Herritarren karpetak aukera ematen dio erabiltzaileari, modu arin eta errazean eta erregistratu beharrik izan gabe, bere informazio guztia duen eremu pertsonal batera sartzeko (erregistro-idazpenak, espedienteak, administrazioaren esku dauden datuak), erakunde eskuduna ezagutu beharrik izan gabe eskaerak edo idazkiak aurkeztu ahal izateko, edo izapideak egiteko egoitza elektronikotara sartzeko.

Amorebieta-Etxanoko eta Laudioko udalek zerbitzu hori dutela baieztatu dute, eta honako jarduketak hauek egiteko aukera ematen dute:

JARDUKETAK	AMOREBIETA- ETXANO	LAUDIO
- Espedienteen egoerarako sarbidea, zeinetan interesdun gisa ageri den	-	-
- Jakinarazpen elektronikoak jasotzea	✓	✓
- Erregistraturiko eskabide, idatzi eta agiriak kontsultatzea	-	✓
- Erroldarekin lotutako izapideak egitea (alta, erroldatze-ziurtagiria, etab.)	✓	✓

Laudioko Udalean jasotako sarbideak (Amorebieta-Etxanokoak ez du informazio hori) honako hauek dira:

URTEA	SARBIDE KOP.
2018.....	164
2019.....	207
2020.....	388



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Datuak/egiaztapen kode seguruak egiaztatzea

Hiru udalek 2018az geroztik dituzte kopia elektronikoak egiaztatzeko tresna informatikoak. Tolosako Udalak 2018., 2019. eta 2020. ekitaldietan egindakoak (Amorebieta-Etxanoko eta Laudioko udalek ez dute informazio hori) honako hauek dira:

URTEA	EGIAZTAPEN KOP.
2018	29
2019	320
2020	458

Sarbide elektroniko orokorra

Sarbide elektroniko orokorra herritarrek administrazio publikoekin duten harremana errazten duen ataria da, zerbitzu publikoak internet bidez sartzeko atea baita.

Tolosako Udalean 2017an jarri zen martxan; Zornotzan eta Laudion, berriz, 2018an hasi ziren erabiltzen, baina ez dute horri buruzko informaziorik. Tolosako Udalean, une horretara egindako bisitek nabarmen egin dute gora 2018-2019 aldian:

URTEA	BISITA KOP.
2018	20.420
2019	70.842
2020	91.357





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Erregistro elektronikoa

Amorebieta-Etxanoko Udalaren erregistro elektronikoko sarrerak eta irteerak 2014an jarri ziren martxan, eta Laudio eta Tolosako udaletan, berriz, 2018an. 2018tik 2020ra bitarteko aldirian, erregistroen guztizkoarekiko sarreraren eta irteeren ehunekoa nabarmen handituz joan da eta honako hau izan da:



OHARRA: Amorebieta-Etxanoko Udalak jakinarazi du ehunekoa 0 izan dela hiru urteetan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aztertutako hiru udaletako bakar batek ere ez du erregistro ziurtatuko aplikaziorik administrazio publikoen artean erregistro-idazpen elektronikoak EIS (erregistroen interkonexio-sistema) bidez trukatzeko; horrek elkarreragingarritasun- eta interkonexio-betebeharra betetzea ahalbidetuko luke (APELen 16.4 artikulua).

Tolosako Udalak eskuragarri du bere egoitza elektronikoan erregistro elektronikoa sortzeko ordenantza, hura kudeatzeko ardura duen organoa, data eta ordu ofiziala ez ezik, baliogabetzat jotako egunak ere zehazten dituen (APELen 16.1 artikulua). Beste bi udalek ez dute informazio hori argitaratzen.

Bestalde, hiru udalek erregistro orokorreko bulegoak erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetara egokitu dituzte, eta 2020ko ekainaren 30ean honako eginkizun hauek betetzen dituzte:

EGITEKOAK	AMOREBIETA-		
	ETXANO	LAUDIO	TOLOSA
- Paperean aurkeztutako dokumentazioa digitalizatzea	✓	✓	✓
- Interesdunek euskarri elektronikoan edo paperezkoan aurkeztutako dokumentuen kopia elektroniko autentikoak egitea	✓	✓	✓
- Interesdunei bitarteko elektronikoak erabiltzen laguntzea; zehazki, identifikazio eta sinadura elektronikoak, horretarako dauden bitartekoak eta erabiltzeko moduari dagokionez.....	-	✓	✓
- Jakinarazpenak egitea, interesdunak edo haren ordezkariak bulegoan bat-batean agertzen direnean eta une horretan komunikazio edo jakinarazpen pertsonala egiteko eskatzen dutenean	✓	✓	✓
- "Apud akta"ren ahalordea ematea, pertsonalki agertuta	-	-	✓
- Interesdunei identifikazio-kodea ematea, zuzentzen zaizkion administrazio-organo, -zentro edo -unitatearena	✓	-	✓
- Interesdunek aurkeztutako eskabide, komunikazio eta idazkien aurkezpen eguna eta ordua egiaztatuko duen agiria ematea.....	✓	✓	✓

Tolosako eta Laudioko udaletako bulego horietako langileek beren eginkizunak betetzeko berariazko prestakuntza jaso dute. Gainera, hiru udaletan bulego horiek berariazko ekipamenduz hornitu dira funtzionatzeko, bai bitarteko elektronikoez (ordenagailuak, eskanerrak...), bai altzariez eta instalazioetako inbertsioez.

Hiru udaletako bakar batek ere ez zuen 2020ko ekainaren 30ean direktorio geografikorik, interesdunak bere bizilekutik gertuen duen erregistro-gaietako laguntza-bulegoa identifikatu ahal izateko (APELen laugarren xedapen gehigarria).

II.4 ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO BESTE ELEMENTU BATZUK

Administrazio elektronikorako tresnak ezartzeak pertsonak beren datu pertsonalak babesteko duten oinarritzko eskubidea bermatu behar du, eta onartutako segurtasun-politikaren arabera egin behar da, informazioaren babes egokia ahalbideratu eta beste administrazio publiko batzuekiko elkarreragingarritasun egokia bideratzeko. 2020ko ekainaren 30ean, aztertutako udal bakar batek ere ez zuen tresnarik erabiltzen beste administrazio batzuekin informazioa elektronikoki trukatzeko.

Bestalde, zerbitzariak gordetzeko eta/edo informazioa eta dokumentazioa biltegitratzeko, litekeena da udalek espazio fisikoak alokatu behar izatea datu-zentroren batean (housing) eta/edo biltegitratzeko zerbitzariren batean (hosting). 2020ko ekitaldian, hiru udaletako inork ez zuen housing kontraturik, ez eta cloud computing zerbitzurik ere (hodeiko zerbitzua).

Datuen babesa

DBEOK ezartzen du erakundeek bermeekin zer baldintzatan trata ditzaketen datu pertsonalak interesa duten pertsonentzat, eta tratamenduen arduradunek datuen segurtasunean inplikazio handiagoa izatea bilatzen du.

DBEOK datuak babesteko ordezkariaren figura jasotzen du, eta horren helburua informazioa ematea, datuak babesteko araudia betetzen dela gainbegiratzea, aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea da. Udalek, datuen tratamenduaren arduradun diren aldetik, datuak babesteko ordezkari bat izendatu behar dute, eta 10 eguneko epean Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi (DBEOren 37. artikulua eta DBLOaren 34. artikulua). Ordezkaria udaleko langilea edo kanpokoia izan daiteke, eta foru-aldundien bidez bideratu ahal izango da.

Laudioko eta Tolosako udalek datuak babesteko ordezkaria izendatu eta jakinarazi dute. Tolosaren kasuan, udal-langileak izendatu dira; Laudion, berriz, datuak babesteko ordezkariaren zerbitzu integrala kanpoko enpresa batekin kontratatu da. Amorebieta-Etxanoko Udalak ez du izendapenik egin.

Bestalde, udalek datuak idatziz tratatzeko jardueren erregistro bat eduki behar dute, baita formatu elektronikoa ere. Erregistro hori kontrol-agintaritzaren eskura egongo da, eta bertan DBEOren 30. artikuluan ezarritako informazioarekin egiten dituzten datuen tratamenduen deskribapena jasoko da eta izaera publikoa izango du (DBLOren 31. artikulua). Laudioiko Udalak gardentasun-atarian argitaratzen du erregistroa; Tolosakoak badu erregistroa, baina ez du argitaratzen; eta Amorebieta-Etxanokoak, berriz, ez du erregistro hori.

Udalek beren datu pertsonalen tratamenduari dagokionez herritarren eskubideak eta askatasuna babesteko, arriskuak ebaluatu behar dira, hala badagokio, arrisku horiek arintzeko beharrezko neurriak hartzeko (DBEOren 32. eta 35. artikulua). Laudioiko Udalak arriskuen ebaluazioa egin du 2019ko martxoan, eta ondorioztatu du ez zegoela maila altuko edo oso altuko arriskurik, eta ez dela beharrezkoa premiazko edo nahitaezko prebentzio-neurririk hartzea, ez eta eraginaren ebaluazioa egitea ere (DBEOren 35. artikulua). Tolosako



Udalean 2020ko urriaren 23an egindako arriskuen azterketan, batez besteko hondar-arriskua da nagusi.

Segurtasunerako Eskema Nazionala

Herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 2ko 11/2007 Legeak Segurtasunerako Eskema Nazional bat sortzeko beharra ezarri zuen, eta 3/2010 Errege Dekretuak garatu zuen. Lege hori indargabetu ondoren, SPAJLk antzeko moduan arautzen du SEN, lege horrek aipatzen dituen bitarteko elektronikoen erabileran aplikatu beharreko segurtasun-politika zehazteko helburuarekin.

Informazioa behar bezala babesteko behar diren oinarriko printzipioek eta gutxieneko eskakizunek osatzen dute SEN, eta administrazio publikoek aplikatu beharrekoa da, beren eskumenak baliatzean kudeatzen dituzten bitarteko elektronikoen erabilitako datu, informazio eta zerbitzuen eskuragarritasuna, osotasuna, erabilgarritasuna, benetakotasuna, konfidentzialtasuna, trazabilitatea eta zaintza ziurtatzeko.

Laudioko Udalak 2018ko azaroan esleitu zuen DBEOra egokitzeko zerbitzua. Zerbitzu horretan, ekintza-plan bat egitea sartzen da, SENek eskatutakoa betetzeko ekintzen multzo ordenatu gisa. Berebat, 2019ko uztailean, GFAk esparru-akordio bat esleitu zuen datu pertsonalen babesaren eta informazioaren segurtasunaren gaitan zerbitzua egokitzeko, eta Tolosako Udala akordio horri atxiki zitzaion DBEOra eta SENera egokitzeari dagokionez.

Tolosako Udalak 2021eko martxoan onartu zuen bitarteko elektronikoen erabilerari buruzko segurtasun-politika (3/2010 Errege Dekretuaren 11. artikulua). Goi-mailako dokumentua da, informazioaren segurtasunarekiko konpromisoa erakusten duena eta nola lantzen den zehazten duena. Laudio Udalak zirriborro bat du, onartzeke.

Tolosako Udalak zinegotzi bat eta idazkaritza eta informatika arloetako hiru langile izendatu ditu informazio-, zerbitzu- eta segurtasun-arduradun (3/2010 Errege Dekretuaren 10. artikulua) eta IKT sistemaren arduradun. Aztertutako beste bi udaletako arduradunen izendapenak gauzatu gabe zeuden fiskalizazio-lana egin dugun datan.

Amorebieta-Etxanoko Udala behe-kategorian¹ dago SENi dagokionez, eta Laudio eta Tolosakoak, berriz, erdi-mailan (3/2010 EDren 43. artikulua). Laudio Udalak 2019ko otsailaren 10ean SEN betetzen duela egiaztatzeko auditoria egin du (3/2010 EDren 34. artikulua).

3/2010 EDren 35. artikulua betetzeko (sektore publikoko IKTen sistemen segurtasunaren egoera aldizka ebaluatzeko betebeharra eta neurketa-sistema bat ezartzeko beharra ezartzen ditu), Kriptologia Zentro Nazionalak Segurtasunaren Egoerari buruzko Txosten Nazionala (SETN) izeneko tresna garatu du, eta tresna horrek erakunde guztiei SENarekiko egokitzapen-maila eta sistemen segurtasun-egoera azkarrago eta intuitiboago ezagutzeko aukera ematen die.

¹ Informazioaren edo sistemen segurtasunari eragiten dion gorabehera batek erakundean izango lukeen eraginaren balorazioa.

Alabaina aztertutako udal bakar batek ere ez dizkio SETNri beharrezko datuak eman (2016ko urriaren 7ko segurtasuneko jarraibide teknikoa).

Azkenik, aipatu behar da udal batek ere ez duela segurtasun-gorabeherarik izan bere sistemetan, sareetan eta terminal informatikoetan azken hiru urteetan.

Hosting-a

2020. urtean, Amorebieta-Etxanoko eta Laudioko udalek 3.700 eta 1.200 euro ordaindu dizkiete enpresa pribatuei, hurrenez hurren, indarrean dauden ostatatze-kontratuengatik; kontratu horiek funtzionamendurako, mantentze-lanetarako eta gorabeheren konponbiderako euskarri teknikoa besarkatzen dute. Tolosako Udalaren kasuan, IZFEk ostatatze-zerbitzuaren kostua fakturatzen du gainerako zerbitzuekin batera (ikus II.6). Hauek dira ostatatze-zerbitzu erabilgarriak:

OSTATATZE-ZERBITZUAK	AMOREBIETA-		
	ETXANO	LAUDIO	TOLOSA
Webgunea.....	✓	✓	✓
Domeinua.....	✓	✓	✓
Helbide elektronikoko kontuak	✓	-	-
Udal aparkalekurako aplikazioa.....	✓	-	-

II.5 TRAMITAZIO ELEKTRONIKOAN ERDIETSITAKO MAILA

Udalek izapidetze elektronikoa 2020ko abenduaren 31n erdietsitako maila oso bestelakoa da batetik bestera, ez udalen artean bakarrik, baita dagozkien izapideen arabera ere:

UDAL IZAPIDEA	AMOREBIETA-		
	ETXANO	LAUDIO	TOLOSA
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga	0	4	1
- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga	0	4	1
- Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga.....	0	4	0
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.....	0	4	0
- Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zerga	0	4	1
- Tokiko jabari publik. erabilera pribatiboagat. edo aprobetxam. bereziagatik tasa	0	2	3
- Obra-lizentziak eskuratzea	0	2	3
- Establezimenduak irekitzeko lizentziak eskuratzea	0	2	3
- Erroldatzea (altak, bajak, bizileku-aldaketa).....	2	3	3
- Kultura- eta prestakuntza-jardueretarako sarbidea (tailerrak, ikastaroak, etab.).....	1	0	3
- Kirol-jardueretarako sarbidea.....	1	0	3
- Laguntzak eta dirulaguntzak.....	0	2	3



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Taula honetan jasotzen da aurreko koadroan adierazitako maila bakoitzaren definizioa:

MAILA	DESKRIBAPENA
0	Egoitza elektronikoan ez dago izapideari buruzko informaziorik.
1	Egoitza elektronikoan izapideari buruzko informazioa soilik dago.
2	Izapidea egiteko bete beharreko inprimakiak edo eskabideak deskargatzeko aukera.
3	Egoitza elektronikoaren bidez, betetako inprimakiak edo eskabideak bidaltzeko aukera ematen du.
4	Izapidetze osoa egitea ahalbidetzen du (ordainketa barne, beharrezkoa bada).

II.6 AUREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Jasotako dirulaguntzak

Aztertu ditugun hiru udaletatik batek ere ez du dirulaguntzarik jaso administrazio elektronikoaren ezarpen eta mantentze-lanetarako, ez 2019an ez 2020an.

Aurrekontu gastuak

Administrazio elektronikoaren zerbitzuek eragindako gastuak honako hauek dira:

UDALA	Euroak milakotan	
	2019	2020
Amorebieta-Etxano.....	18	38
Laudio	-	-
Tolosa (*).....	128	130

(*) IZFEk emandako informatikako zerbitzu guztien kostua barne hartzen du.

Amorebieta-Etxanoko Udalak dituen tresnen mantentze-lanak bakarrik ordaindu behar ditu urtero. Laudioko Udalak ez du kontzeptu honengatik gasturik egin, zerbitzu horiek AFAk doan ematen baitizkio. Ordea, Tolosako Udalak 2003an sinatutako hitzarmenean araututakoaren arabera ordaintzen ditu IZFEk emandako zerbitzuak (ikus II.2).

II.7 WEBGUNEEN ETA APLIKAZIO MUGIKORREN IRISGARRITASUNA

Irisgarritasuna webguneak eta gailu mugikorretarako aplikazioak diseinatzean, eraikitzean, mantentzean eta eguneratzean errespetatu behar diren printzipio eta tekniken multzoa da, erabiltzaileen sarbidean berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko, bereziki desgaitasuna duten pertsonen eta adinekoen sarbidean.

Udalek irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuaren aginduak bete behar dituzte, sektore publikoko gailu mugikorretarako aplikazioen eta webguneen irisgarritasunari buruzkoa; besteak beste, honako hauek:



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ZERBITZUAK	AMOREBIETA- ETXANO	LAUDIO	TOLOSA
- Tokiko erakundean gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunaren unitate arduraduna izendatzea (16. art.).....	-	-	-
- Udalaren webguneen irisgarritasun-baldintzak betetzearen egoera,	Zati batean	Ez dago	Ez dago
irisgarritasun-adierazpenaren arabera (15. art.)	ados	adierazpenik	adierazpenik
- Udalaren gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasun-baldintzak.....	Ez dago	Ez dago app	Ez dago app
betetzea, irisgarritasun-adierazpenaren arabera (15. art.).....	adierazpenik	gailu mugik.	gailu mugik.
- Irisgarritasunari buruzko urteko txostena (17. art.).....	-	-	-
- Iradokizunak, kexak, ez-betetzei buruzko informazioa eta baztertutako informazioa eskatzeko komunikazio-mekanismoa (10. art.)	✓	✓	✓
- Neurritz kanpoko kargatiko ez-betetzeen salbuespenaren justifikazio-txostena (7.5 artikulua) edo jarduketa horiek ez daudela dioen urteko berariazko aitortpena.....	-	-	-

II.8 SARE SOZIALAK, WIFI KONEXIOA

Sare sozialak

2020ko ekainaren 30ean udalek profil aktiboak dituzte honako sare sozial hauetan:

SARE SOZIALA	AMOREBIETA- ETXANO	LAUDIO	TOLOSA
Facebook	✓	✓	✓
Twitter	✓	-	✓
Instagram.....	-	✓	-
WhatsApp.....	✓	✓	-
Youtube.....	✓	✓	✓

Sare sozialetako profilen eta argitalpenen kudeaketa udaletako bertako langileek egiten dute. Edukiak udalerriko albisteei, kexa eta iradokizunei eta herritarrentzat interesgarria izan daitekeen beste edozein informaziori buruzkoak dira.

Wifi konexioa

Udalek hari gabeko sareak dituzte kasu hauetan:

ZERBITZUAK	AMOREBIETA- ETXANO	LAUDIO	TOLOSA
- Udal bulego guztiek haririk gabeko sareak dituzte udal langileak konektatzeko	✓	(*) ✓	-
- Udal bulego guztiek haririk gabeko sareak dituzte herritarrek doan konektatzeko.....	(*) ✓	-	✓
- Udalak udalerriko zenbait gunetan herritarrentzako haririk gabeko doako sareak ditu.....	✓	-	✓

(*) Udal bulego batzuetan bakarrik, ez guztietan.

II.9 COVID-19AREN ONDORIOAK

COVID-19ak eragindako osasun-krisiagatiko alarma-egoera deklaratu zenetik (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua), langile publiko askoren lan-modua aldatu zen, eta telelana areagotu egin zen.

Alarma-egoerako aldian, 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 20ra bitartean, hiru udalek udal-langileek urrutiko zeregin batzuk bitarteko elektronikoko eta telematikoen bidez egiteko (telelana) neurriak ezartzeari buruzko erabakiak hartu zituzten; neurri horiek gerora aldatu egin dira Laudioko eta Tolosako udaletan.

2020ko martxoaren 14a baino lehen, Amorebieta-Etxanoko Udalak soilik sinatu zituen telelana ezartzeko akordioak, eta 2019ko abenduaren 31n langile bat zegoen egoera horretan.

Lehen aipatutako alarma-egoeran eta 2020ko abenduaren 31n telelanean dauden langileak honako hauek dira:

UDALA	Alarma egoera			20/12/31n Telelanean
	20/03/14 – 20/06/20			
	Langileak	Telelanean	%	
AMOREBIETA-ETXANO	97	80	% 82	2
LAUDIO	181	140	% 77	12
TOLOSA	179	120	% 67	4

2020ko martxoaren 14tik ekainaren 20ra bitarteko aldian, telelanean ziharduten langileek honako arlo edo sailetan ematen zuten zerbitzu:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ARLOA/SAILA	AMOREBIETA-		
	ETXANO	LAUDIO	TOLOSA
Idazkaritza	(*) ✓	✓	(*) ✓
Kontratazioa	(*) ✓	✓	(*) ✓
Kontu-hartzailletza.....	(*) ✓	✓	(*) ✓
Diruzaintza.....	(*) ✓	✓	✓
Diru-bilketa	(*) ✓	✓	(*) ✓
Erregistro Nagusia	-	✓	✓
Zerbitzu teknikoak	(*) ✓	-	✓
Giza baliabideak.....	(*) ✓	✓	✓
Gizarte zerbitzuak	-	✓	✓

(*) Telelana arlo edo saileko langile guztiek egiten dute.

Langile horiek telelanean euren egitekoak betetzeko erabilitako baliabideak honako hauek izan dira:

ERABILITAKO BALIABIDEAK	Langile kopurua					
	20/03/14 - 20/06/20 ALDIA			20/12/31N		
	AMOREBIETA- ETXANO	LAUDIO	TOLOSA	AMOREBIETA- ETXANO	LAUDIO	TOLOSA
- Euren egitekoak Udalaren ordenagailu eramangarriekin egiten dituzte	20	4	40	1	-	2
- Nork bere baliabide informatikoak erabili behar izan zituen.....	60	136	80	1	12	2
TELELANEAN LANGILEAK GUZTIRA	80	140	120	2	12	4

Egiteko telematikoak ezartzeko, udalek honako baliabide tekniko hauetan egin dituzte inbertsioak:

INBERTS.	AMOREBIETA-ETXANO		LAUDIO		TOLOSA	
	ZK.	Kostua (eurotan)	ZK.	Kostua (eur.)	ZK.	Kostua (eur.)
Ordenagailu eramangarriak	6	4.200	-	-	36	25.451
Monitoreak	-	-	-	-	15	2.200
Telefono mugikorak	5	500	-	-	7	1.715
Txartel elektronikoen irakurgailuak	2	80	-	-	20	300
KOSTUA GUZTIRA		4.780		-		29.666

Honako soluzio tekniko hauek hartu dira:


SOLUZIO TEKNIKOA	AMOREBIETA-		
	ETXANO	LAUDIO	TOLOSA
Ziurtagiri generikodun VPNa.....	✓	-	-
Erakundearen makinaren aurkako urrutiko kontroleko programak	-	✓	✓

Bestalde, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan premiazko neurri osagarriak hartzen dituenak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46. artikulua aldatzen du; hala, salbuespenezko egoeretan, kide anitzeko organoak eratu, bilkurak egin eta urrutiko akordioak egin ditzakete bitarteko elektronikoko eta telematikoen bidez, baldintza jakin batzuekin. Aztertutako udaletan, organo hauek urrutiko saioak egin dituzte:

ORGANOA/SAIOA	AMOREBIETA-ETXANO		LAUDIO		TOLOSA	
	Aldia		Aldia		Aldia	
	Alarma e.	20/06 ondoren	Alarma e.	20/06 ond.	Alarma e.	20/06 ond.
Osoko bilkura	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Gobernu Batzarra	✓	✓	✓	✓	✓	-
Kontratazio-mahaia	-	-	-	-	✓	✓
Informazio Batzordeak	-	✓	✓	✓	✓	-
Koordinazio bilerak	✓	-	-	-	-	-
Bozeramaileen Batzarra	-	-	✓	✓	-	-

II.10 INGURUMENEAN INPAKTUA

Aزتتutako udaletan administrazio elektronikoa ezarri eta erabiltzearen ondorioz, material kontsumigarrietan eta posta arruntean egindako gastuaren bilakaera honako hau izan da 2018tik 2020ra:





OHARRA: Amorebieta-Etxanoko Udalean informazio hori ez dago eskuragarri.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas




Administrazio elektronikoa ezartzeak ez du ekarri udaletako administrazio-eraikinetan dokumentazioa artxibatzeke espazioa murriztea.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Bestalde, zabor elektronikoa birziklatzeak (CPUak, inprimagailuak, disko gogorrak, etab.) garrantzi handiagoa hartu behar du, eta Amorebieta-Etxanoko eta Tolosako udalek horretarako protokoloak ezarri dituzte.



10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010

10/10/2010



ABREVIATURAS

CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CCN	Centro Criptológico Nacional.
CCASA	Centro de Cálculo de Álava, SA.
DDFF	Diputaciones Forales.
DFA	Diputación Foral de Álava.
DFB	Diputación Foral de Bizkaia.
DFG	Diputación Foral de Gipuzkoa.
EJIE	Sociedad Informática del Gobierno Vasco, SA.
ENI	Esquema Nacional de Interoperabilidad.
ENS	Esquema Nacional de Seguridad.
INES	Informe Nacional del Estado de la Seguridad.
IZENPE	Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe, SA.
IZFE	Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea-Sociedad Foral de Servicios Informáticos, SA.
LOPD	Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.
LPAC	Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
LRJSP	Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
NISAE	Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi.
RD 3/2010	Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica.
RD 4/2010	Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica.
RGPD	Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento General de Protección de Datos).
THA	Territorio Histórico de Álava.
THB	Territorio Histórico de Bizkaia.
THG	Territorio Histórico de Gipuzkoa.
TIC	Tecnologías de la Información y las Comunicaciones.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.



I. INTRODUCCIÓN

El TVCP, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno, ha analizado el estado de la implantación de la administración electrónica en los ayuntamientos de municipios entre 10.000 y 20.000 habitantes a 30 de junio de 2020, ampliando el análisis a la situación a 2 de abril de 2021 de determinadas previsiones que entran en vigor a dicha fecha. Este trabajo se ha realizado en coordinación con el resto de Órganos de Control Externo del Estado y con el Tribunal de Cuentas.

El informe abarca los siguientes aspectos:

- Valorar la efectiva implantación en los ayuntamientos de la administración electrónica.
- Obtener de los entes fiscalizados los ingresos recibidos para la implantación de la administración electrónica y los gastos específicamente realizados para ello.
